

## BESTELAKO XEDAPENAK

### GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

## 5202

*AGINDUA, 2022ko azaroaren 7koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez Vitoria-Gasteiz, Araba Mobility Lab Fundazioa izeneko fundazioaren eraketa inskribatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan.*

2022ko uztailaren 22an, Vitoria-Gasteiz, Araba Mobility Lab Fundazioa izeneko fundazioaren eraketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko eskabidea aurkeztu zen, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailean. Espedientean jasotako dokumentuak erantsi zitzaizkion eskabideari.

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Aholku Batzordea 2022ko urriaren 20an bildu zen, fundazioaren xedeen zilegitasunari eta interes orokorrari eta haren bideragarritasunari buruzko inskripzio-eskaera baloratzeko, eta aldeko txostena eman zuen.

Estatutuen 3. artikuluan ezarritakoaren arabera, Vitoria-Gasteiz izeneko Araba Mobility Lab Fundazioaren helburu orokorra da Vitoria-Gasteizen eta Araban mugikortasuna eta logistika hobetzeko eta ekonomia-sarearen lehiakortasuna bultzatzeko ekimenak, esperientziak eta pilotuak antolatzea, sistematizatzea eta antolatzea, bai eta mugikortasunaren eta logistikaren arloko berrikuntza-polo bat eraikitzea ere, Vitoria-Gasteizerako eta Arabarako politika eraldatzaileetan erreferente izango dena.

Estatutuen 4. artikuluan xedatutakoaren arabera, fundazioaren egoitza Vitoria-Gasteizen dago (Probintzia plaza z.g.), eta fundazioak Arabako Lurralde Historikoan gauzatuko ditu bere jarduerak.

Fundazioaren hasierako zuzkidura hirurogei mila eurokoa (60.000 euro) da, eta honela osatu da, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 12. artikulua bigarren atalean ezarritakoari jarraituz:

– Arabako Foru Aldundiak hogeita hamar mila euro (30.000 euro) sartu ditu Kutxabank banke-txean. Egiaztatuta geratu da, aipatutako erakundeak 2022ko otsailaren 24an egindako ziurtagiriaren bitartez.

– Vitoria-Gasteizko Udalak hogeita hamar mila euro (30.000 euro) sartu ditu Kutxabank banke-txean. Egiaztatuta geratu da, aipatutako erakundeak 2022ko ekainaren 22an egindako ziurtagiriaren bitartez.

Estatutuen 8. artikulua arabera, patronatua honela osatuko da: gutxienez zortzi lagun, eta gehienez hogeita hamar. Estatutuen 12. artikulua arabera, patrono-karguaren iraupena muga-gabea izango da.

Eraketaren eskritura publikoan jasota dagoenez, lehenengo patronatua honako kide hauek osatuko dute:

- Presidentea: Ramiro González Vicente jauna, Arabako ahaldun nagusia.
- Bokala: María Pilar García de Salazar Olano andrea, Ekonomiaren Garapen, Berrikuntza eta Erronka Demografikoko foru-diputatua.

– Bokala: Carlos Ibarluzea Martínez jauna, Bide Azpiegituretako eta Mugikortasuneko foru diputatua.

– Bokala: José Luis Cimiano Ruiz jauna, Arlo Estrategikoetako zuzendaria.

– Bokala: Gorka Urtaran Agirre jauna, Vitoria-Gasteizko Udaleko alkatea.

– Bokala: Raimundo Ruiz de Escudero Ezkurra jauna, Mugikortasuneko eta Espazio Publikoko Departamentuko zinegotzi ordezkaria.

– Bokala: Saray Zárate Fernández de Landa andrea, Klima, Mugikortasun eta Espazio Publikoaren Arloko koordinatzailea.

– Bokala: Borja Rodríguez Ramajo jauna, Udal Administrazioiko eta Eraldaketa Digitaleko eta Herritarren Partaidetzako, Gardentasuneko eta Gizarte Etxeetako zinegotzi ordezkaria.

– Idazkaria: Erika Muñoz García andrea.

Izendatutako pertsona guztiek onartu dute beren kargua, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 9ko 9/2016 Legearen 16.2 artikuluan aurreikusitako eraren batean.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak eman behar du, agindu bidez, eratzeko espediente honi buruzko ebazpena, honako arau hauetan xedatutakoarekin bat etorritz: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 3.1.a) artikulua; Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzeko Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 7.1.n) artikulua, eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 3.1 artikulua.

Pertsona legitimatu batek sustatu du espediente hau, eta ebazpena emateko oinarritzotzat jotzen diren dokumentu eta datu guztiak aurkeztu dira. Horrela, bereziki betetzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 7. artikulutik 12. artikulura eta 51.2 artikuluan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 41. artikuluan eskatutakoa. Hortaz, erregelamenduetan ezarritakoarekin bat etorritik eratu da Fundazioa.

Aipatutako arauak eta aplikatu beharreko gainerakoak ikusita, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Agindua ematea Vitoria-Gasteizko Vitoria-Gasteiz, Araba Mobility Lab Fundazioa izeneko fundazioaren eraketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko, egun honetan eta F-481 zenbakiarekin, bai eta patronatuaren hasierako osaera ere. Patronatuko kideak seigarren egitate-aurrekarian aipatzen dira, eta guztiek espresuki onartu dute beren kargua, hain zuzen ere María Concepción Granada Fernández de la Padrilla Gasteizko notario andrearen aurrean 2022ko uztailaren 12an egiletsitako eskritura publikoan jasotako zehaztapenekin bat etorriaz (Protokolo-zenbakia: 522).

2022ko azaroaren 29a, asteartea

## XEDAPEN GEHIGARRIA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea eta interesdunei bidaltzea.

## AZKEN XEDAPENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, haren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioko Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko azaroaren 7a.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,  
OLATZ GARAMENDI LANDA.